

Eider Alkorta

POLITOLOGOA

Alakranaren auzia

Alakrana atun-ontzia bahitu zutenetik hilabete luze pasa den honetan, lehenetsi beharrekoa arrantzaleak askatzea dela ezin da ukatu, horrela adierazi dute arrantzale hauen senide eta bizi-

lagunek. Pilar Unzalu Lakuako Arrantza Sailburuak bost euskal herriek deitutako elkarretaratzea familien mina politikoki erabiltzea dela esan ostean, bere hitzak zuzendu ditu baina agerian utzi du Gasteizko Gobernuak eta berak ordezkatzeko duen alderdiak ez duela iritzi berdina beste mobilizazio eta beste biktima batzuen sufrimenduari dagokionean. Biktimak beste batzuk direnean, Gobernuak hor egon behar du eta elkartasuna adierazi behar die senitartekoei, Bermeoko elkarretaratzean aldiz ez dute “beharrezkotzat” jo.

Alderdikeri zantzuak, nik arrantzaleak defendatzen ditut eta zuk ez, Europara joan behar gara guk defendatuko baditugu euskal arrantzaleak, Espainiako Gobernuaren utzikeria agerikoa da gertaera tamalgarri honetan, Espainiako ejertzitoak defendatu behar ditu euskal arrantzaleak... Zertarako ordaintzen ditugu ba zergak? Zertarako dago ba espainiar ejertzittoa? Denetarik entzun da, kontraesanen uretan mugitu dira eragile eta politikari ezberdinak,



JUDIT FERNANDEZ

baina jorratu ez dena aurrera begirako estrategia da. Arrantzaleak laster etxean izango direnaren desioarekin, uneko gatazkatik harago auzi honek beste erreflexio batera ere bultza egin beharko luke.

Arrantzale eta armadore, patroli eta arrain industriaren negozioaren bitartekariak bereizi beharko ditugu, itsasoko langileak eta enpresa gizonak. Zein dago benetan interesatua Indikoan arrantzan jarraitzeko? Nor da benetan onuradun? Zeinen biktima dira arrantzaleak? Indikoko egoera tentsatzeko eta militarizatzen ari den honetan, zergatik erabakitzen da atun-ontzi gehiago bidaltzea? Arriskua hain handia izaki, eta bahiketak jarraituko duten prebisioarekin, arrantzaleak Indikora bidaltzen jarraitzen da, ejertzito espainolaren presentzia aldarrikatu dute batzuek eta segurtasun pribatuan dirutza handiak gastatzeko prest agertu dira, ontziak armamentuz betez. Norbaiti eta zenbait industria eta negozioari konpentsatzen diola ondorioztatu beharko dugu, aitzakiapean gure arrantzale xumeen ogibide eta eskubideak aipatzen badira ere. Lehen eta Hirugarren Munduaren arteko auzia ere bada, askok demagogikotzat hartzen duten errealitate krudela: “Gure baitan daude biak, zapaltzaileak eta zapalduak”. ■



Nor da benetan onuradun?

Zeinen biktima dira arrantzaleak?


Indikoko egoera tentsatzeko eta militarizatzen ari den honetan, zergatik erabakitzen da atun-ontzi

gehiago bidaltzea?



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Hitza irakurri zuen nik neraman egunkarian. Nire alboan ezarrita zegoen, neroni bezala mutil kozkorren futbol partidaren hasieraren zain. Ez zuen hitzaren berri, ez zuen inoiz entzuna. Euskarazko egunkari bakarra zen nirea, dozena baten artean. Ohituta nago. Berak semea zuen jokalaria, bertan egoteko arazo, nik, denbora zaletasun horri emateko. Berak semearen kolorea zuen pasio, nik jokoaren ederra, mutil kozkorren lan ederraren bila. “Semeek naute euskarazaletu”, kanpotarra nauzu. Euskaraz mintzo zitzaion semeari, inguruko euskaldun kideei gatzeleraz. Partida-

Deserrian

ren erdian luze eta zabal aritu ziren semeek sartu ez zituzten golak nola sartu behar ziren

elkarri esaten. Bigarren denboran bereek irabazi zuten partida. Ondoren, semeekin hizketan, ohartu nintzen gehienak gauza bazirela euskaraz egiteko. Hala ere, burua itzulikatuz gatzelera zioten egiten elkarri semeak lekuko. “Ez dugu ohiturarik gure artean euskaraz mintzatzeko”. Entrenatzailea ere, erdalduna. Ez omen da arazo, nahiz eta Herriko Etxearekin sinatu konbenioak bestela agindu. Handik airatu eta *Berriaren* bakartasunak deserrian nintzela irakatsi zidan kolpez, hango inor bezperako Baionako manifaren berri ez izatea makil. ■